


Henduen Literatura

Hezur gabeko hilak
Xabier Montoia.

Susa, 1999



Baina bizirik

GERRA ZIKINA existitu izanak gerra garbirik egon dela pentsatzera eraman gaitzakeen bezala, ausartzen gara esatera tamaina aldetik gerra diferenteak egon direla. Gerla Handia deitzen diogu, hartara, 1914-1918 artean eragin zuen txikizioari. Nahiz gerora gertatu diren handiagoak. Nahiz gerra bat sekula ezin daitekeen gerta txiki, ez behintzat bizi izan duenari. 14koa, ordea, handia izateaz gainera, ez zen inolaz ere arrotz izan euskaldunontzat; geratu zitzaigun bakarrik iparraldera. Armiamako lagunak ari dira, haatik, gogoratzen efemeridea. Astez aste argitaratu ziren *Eskualduna* eta *Euzkadi* agerkarietako testuak on-line jartzeaz batera, esaten digute: bizi izandakoen kronika eta oroitzapenen bitartez jaso zuela gure literaturak I. Mundu Gerlareren testigantzarik fidelena. Kirikiño eta Batxiren kronikekin, adibidez, edota Jean Elizalderen *57a Gerlan*. Baina narrazio eta eleberriek ere hartu dute la gaia, XX. mendean, halaber XXI.ean. Bi mendeon arteko saltoan argitaratu zen, hain zuzen, *Hezur gabeko hilak*.

Xabier Montoiaren bigarren den eleberri honek tan –“beste ezusteko bat eman digu”, zioen Markos Zapiainek orduko hartan–, Jean Etxegoien eta David Mandel soldaduen guduketa garaiko gorabeherak kontatzen zaizkigu. Euskalduna bata, errusiarra bestea, frantses dira biak paperean, eta, garrantzitsuago, gerrako lehen lerroan. Noski, izugarriak

dira batailetakoak, sekula erori gabe futbol partida baten narrazioan. Izugarriak dira noski batailaren ondorengoak, “soinetik bereizi besoak, zango solteak, buru baten zatiño ezagutezinak”. Baina berdin dira hemen izugarriak, noiz ez diren areago, hurrengo batailara artekoak: Etxegoien eta Mandelen arteko solasak, maiteaz, iragan bizitzaz, gizajendeaz, gerraz, jendarteaz, etorkizun denaz. Ahaztu gabe laguntasunaz. Laguntasun gordin eta muturreko baten istorioa baita, azken batean, irakurle maite, *Hezur gabeko hilak*. Eta ez sobera abegikorra euskaldunekiko: esaterako, Piarres Landa elkartzen zaie-nean, saratarra, 57koa –Jean Elizalde bezala–. “Frantsesez ere ez dakien ezjakin hori?”, dio Etxegoien eskolatuak. “Bertze euskaldun alu bat! Ardi eta emazte hilen bortxatzaile gorrotagarria”.

Baina, oroz gain, basakeria handienaren erdian ere, bizitzaren aldeko kantu baten aurrean gaude. Edo gautza: “Berdina duk guztien lehia: une bat gehiago, bertzerik ez bada ere, bizitzen jarraitzea, handizki pairatu behar izan arren. Nehork ez dik nahi mundu satsu honen uztea!”. Rosario ez dakit sailduko iraultzaile hark esan zuenaz bestera, alegia: “Hobe okerturik baina bizirik ezen ez harro katabut baten barnean”. ■

Aritz
Galarraga



Zinemara urte osoan!

· JAN EDAN ENTZUN IKUSI ETA IKASI ·

Donostia - alde zaharra

www.afuegonegro.com